


1

SAKONTZEN

2015eko Otsaila

Ezker Abertzalearen *egokitzapena*





Iratzar Fundazioa

Zuatzu Enpresa parkea

Ulia 1,1.

20018 Donostia (Euskal Herria)

www.iratzar.eus

fundazioa@iratzar.net



Ezker Abertzalearen egokitzapena

Aurkibidea

<i>Sarrera</i>	4
<i>Askapen Nazional eta Sozialerako Proiektuaren garapena (Teoria Abertzalea).</i>	6
▪ <i>Perspektiba politikoa eta Ezker Abertzalearen teoria.</i>	11
<i>Aldaketa.</i>	13
▪ <i>Aldaketa beharraren adierazleak.</i>	13
▪ <i>Eta berriaren hasierako testuinguruaren argipena</i>	14
<i>Non gaude?</i>	17
▪ <i>Prozesuaren ezaugarritzea</i>	18
▪ <i>Hegemonía</i>	20
▪ <i>Independentzia</i>	22
▪ <i>Demokrazia Euskal Herriarentzat</i>	22
▪ <i>Sozialismoa</i>	24
▪ <i>Diskurtsoaren beharra prozesuari bultzada emateko</i>	26
▪ <i>Militantzia</i>	27
<i>Azken Xedapenak</i>	29

Sarrera

Historiak edo, hobeki esan, gertaera historikoek funtsezkoa den gauza bat irakatsi digute: egoera guztiek elkarri lotuta dauden testuinguru bat eta aurrekari batzuk dituzte. Hori ezagutzeak objektuaren zentzua (Ezker Abertzalearen aldaketa estrategikoa) eta haren azpian dauden balioak ulertzen lagunduko ditu.

Lan analitiko guztiek helburu bat daukate. Orain aurkezten dugun honek Ezker Abertzalearen koordinada berrietan kokatu nahi gaitu. Koordinada horiek egiaztapenez beteta daude, baina inkognitak ere ugariak dira. Egiaztapenen bidez geure burua ezagutu ahal dugu, eta inkognitei aurre egiteko oinarri psikologiko bat ezar dezakegu. Gizakiak beti izan dio beldurra ulertu ezin zuenari, eta kontrolatzen ez zituen inkognitak argitzeko azalpenak bilatu ditu bere jardueraren intelektualaren bidez. Gizakiontzat beti izan da beharrezkoa fenomeno guztiak ulertzea eta azaltzea, gure beldurrak uxatzeko ezinbestekoa den egonkortasun psikiko eta emozionala lortzeko.

Guk garai politiko berri bat abiarazi dugu, eta beharrezkoa zaigu inkognitak detektatzea, geure buruari galderak egitea eta, ahal den neurrian, kezkatzen gaituzten gaietarako erantzunak aurkitzea. Nolanahi ere, politikaren mapan gidatu ahal gaituzten erantzun horiek guztiek ezaugarri orokor bat izan behar dute: garai berri honetako filosofiaz blai egotea.

Ezker Abertzaleak bere DNA politikoari eutsi nahi dio eta, hain zuzen ere, horretan datza paradigma politiko berriaren erroka nagusia: nola egin ziklo aldaketa erakunde politiko gisa daukagun ekipaje genetiko mantenduz. Izan ere, ekipaje genetiko horri esker gara militantek, borrokalariak, diziplinatuak, sentiberak, alaiak, eskuzabalak...

Esperientziak erakutsi digunez, etorkizunari aurre egiteko ezinbestekoa da gure iraganaren gaineko ideia argia izatea, baina, batez ere, gaur egun zein egoeratan gauden jakin behar dugu. Karl Marx kritikoa zen sozialismo utopikoarekin, ez ziolako uneko egoerari aurre egiten. Marxen arabera, lehenik eta behin non zauden eta eskuera zer daukazu aztertu behar duzu, eta gero zerbait desberdina eraikitzen saiatu. Guk oso ondo ulertzen dugu Marxek zer esan nahi zuen planteamendu horrekin. Horregatik, ikuspuntu guztietatik aztertu behar dugu non gauden.

Ideiak adierazten dituen azterlan orok ideiak sorraraztera ere jotzen du. Horixe izan behar da ekarpen analitiko ororen ondorioetako bat: irakurtzen den bitartean ideiak sorrarazi behar ditu. Karl Mannheim izan zen gizakiari

buruzko ikerlanetan gizarte planifikatuaren termino modernoa aplikatu zuen lehen soziologoa. Eta printzipio bat ezarri zuen: jakintza partekatuaren printzipioa. Haren arabera, buru batek ezingo du inoiz buru multzo batek baino gehiago jakin. Ezagutza partekatu horren bidez Ezker Abertzalearen eraikin politiko berria intelektualki armatzen joan behar dugu.

Gizakiok gai gara era kolektiboan erabakitzeko, gauzak norabide batetik eta ez bestetik eramateko. Aukeratzen den norabidea inoiz ez da neutroa, eta dagokion une politiko eta sozialaren eraginpean egon ohi da. Teoria abertzalea honako elementu hauen eraginpean sortu zen: gerraondoa, deskolonizazio prozesuak, Kubako eta Aljeriako iraultzen garaipena, gebarismoa eta munduaren ikuspegi sozialista. Elementu horiek guztiak funtsezkoak izan dira gure nortasun politikoaren eraikuntzan. Nolabait esateko, lerro zuzen eskematiko baten baitan planteatzen eta konpontzen genituen arazoak. Lerro zuzen hori marxismoa ulertzeko era desberdinen eta haren interpretazioen eraginpean zegoen. Ezker Abertzaleak ikuskera hori bereganatu zuen, baina, aldi berean, oreka bilatu eta aurkitu zuen kanpotik zetorrenaren eta abertzale izatearen esanahi sozialaren artean. Herriari itsatsita egotera behartzen gintuen oreka horrek ahalbidetu digu bizirik irautea gure inguruan dena erortzen zen bitartean (sozialismo erreala).

Gaur egungo egoerak ez du inolako zerikusirik Ezker Abertzalea sortu zenean geneukanarekin. Kontraesanak gainditzeko lerro zuzen hura bihurtuz betetako bidea da orain. Errepide berri horretatik zirkulatzeko, mapa aldatu behar dugu. Hori da paradigma berria: aldaketa. Aldatu, izaten jarraitzeko.

Sarrera hau bukatu aurretik, prozeduraren inguruko argipen bat egin nahi dugu. Testu idatziak aztertzeko orduan erabiltzen den irizpide ezagun baten arabera, "esaten den horretan esaten ez dena" interpretatu behar da. Horregatik, azterlan honek ez du testu itxia izan nahi, guztiz kontrakoak baizik. Badakigu hutsune asko dituela. Izan ere, une honetan helburua ez zen lan historiko sakon eta zehatza egitea; aurrerago egingo dugu azterlan hori, eta disziplinarreko edukia izan beharko du. Hasieran esan dugun bezala, azterlan honen eginkizun nagusia hau da: Ezker Abertzalearen garapen historikoa eta bere testuingurua azaltzea eta aldatu beharra eragin diguten gakoak argitzea.

Lan honek hiru atal izango ditu:

- Askapen Nazional eta Sozialerako Proiektuaren garapena (Teoria Abertzalea)
- Aldaketa
- Non gaude?

Askapen Nazional eta Sozialerako Proiektuaren garapena (Teoria Abertzalea)

Iragana perspektibarekin aztertuz, eta oso era sinplifikatuan, esan dezakegu azken mendeotan hiru tresna juridiko-politiko-ideologiko nabarmendu direla Euskal Herriak bizirik irauteko garatu duen borrokan: Foruak, teoria Nazionalista eta Ezker Abertzalearen Askapen Nazional eta Sozialaren teoria. Biotako bakoitza gure historiako une zehatz batean garatuta, teoria nazionalista (EAJ) eta Ezker Abertzalearen teoria indarrean dira oraindik. Teoria nazionalistak enuntziatu bat utzi digu: euskotarren aberria Euskadi da (Sabino Arana). Teoria abertzaleak, teoria nazionalistaren enuntziatua bere eginik, ideia zehatzago batean jartzen du indarra: estatua nahi dugu. Teoria nazionalista atzera begira dago oraindik: ez du erabat apurtu esentzia foralarekin, eta horrek proiektu independentista moderno bati aurrez aurre begiratzea eragozten dio. Ezker Abertzalearen teoria, aldiz, modernitatean kokatzen da eta herri gisa dagozkigun eta nazioarteko legeetan jasota dauden eskubideak aldarrikatzen ditu (autodeterminazioa, etab.).

Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialerako proiektua diktadura frankistaren erdian jaio zen, oinarri programatiko-ideologiko sendo batekin: Euskal Herrian independentzia eta sozialismoa lortzea. Teoria horren sorrerak kolokan jarri zuen nazionalismoaren teoria -ordura arte zegoen bakarra-, teoria nazionalistak ez baitzuen herri hau Estatu bat eratzerako eramateko beharrezkoa den erabakitasuna.

Bere bilakaera guztian, Ezker Abertzalearen oinarrizko teoria politikoa bere ibilbidea zehazten joan da, hura elikatu eta indarrean iraunarazi duten ekarpen teoriko-politikoen bidez. Azpiteoria edo teoria osagarri horietako bakoitza (KAS Alternatiba, Hego Euskal Herrirako Autonomia Estatutua, Urrats Berri, Lizarra-Garazi, Loiola, Zutik Euskal Herria...) denboran zehar gertatu diren aldaketa sozial eta politikoen ondorioa izan da, eta guztiek freskotasuna eman diote eta unean uneko egoerara egokitzen lagundu diote. Munduko prozesu politiko-ideologikoen eraginez, Ezker Abertzaleak politikoki birkokatu behar izan du bere burua, bere sorkuntza teorikoaren bidez. Munduan gertatzen denak eragina du proiektu politiko nazionaletan eta haien etapetan, baldintzatu

egiten ditu, baita Euskal Herrian ere: 60ko eta 70eko urteak sozialismoaren eta nazio askapenerako mugimenduen urteak izan ziren; 80koak geldialdiaren eta itxaronaldiaren urteak; 90eko hamarkadan eta hortik aurrerako urteetan sozialismoak ospea galdu zuen eta fase neoliberalak ezarri zen munduan, baina eredu alternatiboak ere sortu ziren (Venezuela, Bolivia...).

Euskal Herrian, nortasun propioa eman dioten gertaera historiko askori aurre egin behar izan die Ezker Abertzaleak. Bere ibilbidean, bertako herri borroken erreferente bihurtu da. Bere izaera independentista eta sozialistak euskal gizartearen sektore handi baten pentsamoldearekin eta mundu ikuskerarekin bat datorren zentzu politiko bat eman dio. Eta gizarte hori bera izan da une erabakigarrietan Ezker Abertzalearen erabaki politikoak babestu dituenak.

Une erabakigarri horietako bat Trantsizioa izan zen. Orduan, Ezker Abertzaleak ez zuen onartu Hego Euskal Herria bi entitate administratibotan zatitzea (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Foru Erkidegoa). Erabaki horren ondorioz, testuinguru politiko hartan indar politikoei egin zitzaien kontsentsu eskaintza errefusatu zuen. Hala Euskal Herriko nola Espainiako erakunde politikoek hautu argi bat egin behar izan zuten orduan: erregimen frankistaren erreforma onartzea edo haustura bultzatzea. Esan dugun bezala, Ezker Abertzaleak hausturaren aldeko hautua egin zuen, argi ikusi baitzuen erreforma ereduak ez zituela jasotzen herri gisa ditugun behar estruktural taktikoak -lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubidea- bideratzeko ezinbestekoak zaizkigun tresnak. Horren aurrean, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetarako estatutu bat defendatu zuen, nazioarteko eskubide horren onarpenean oinarritua.

Hurrengo hamarkadetan, erabaki hori izan zen bere jardura politiko guztiaren ardatza. Horrenbestez, Ezker Abertzaleak ez zituen onartu Euskadira autonomia estatutua eta Nafarroako foru hobekuntza. Orduz geroztik, abertzaletasun independentistaren baitan sarri eztabaidatuko zen nola parte hartu eta nola kudeatu premia politikoak instituzio horietan. Zehazki, hauxe zen argitu beharreko kontua: nola garatu lan politikoak eta aldi berean helburuekin eta printzipio ideologikoen koherente izan zatiketa funkatzen zuen lurralde diseinu batean.

Batzuetan Ezker Abertzalea kontraesanek jositako egoera zen, baina munduko testuinguruaren eta Euskal Herriko egoera politikoaren eraginpean agertzen ziren ekarpen teorikoen bidez kontraesan horiek gainditzeko borondate nabaria erakutsi zuen beti. Ezker Abertzaleak aurrera begiratzen zuen beti, erantzukizunaren zentzu handiz, bere proiektu independentista eta sozialistaren inguruan indarrak biltzeko ahalagin etengabeak eginez.

Azterlan espezifiko bat egin beharko litzateke Ezker Abertzalearen corpus teorikoa elikatu duten ekarpen politikoaren inguruan. Hala ere, 90eko hamarkadan Ezker Abertzaleak erakutsi zuen sormena azpimarratu nahi dugu lan honetan. “Sozialismo errealearen” porrotak lur jota eta babesik gabe utzi zuen mundu zabaleko ezkerria. Une hartan, “ahal duena salba dadila” izan zen “ezkerriaren munduan” nagusitu zen mezua. Ezker Abertzaleak, ordea, beste hautu bat egin zuen: egoera aztertzea, Euskal Herriko testuinguruaren arabera irakurketa egitea eta ibilbide luzeko irtenbideak bilatzea. Orduz geroztik erabakiak hartzeko prozesuek elikatu duten humus politiko-ideologiko bat eratu zuten ekarpen horiek guztiek. Nagusiki, lanabes teorikoak eman zizkiguten ideologiaren arloan polobakarra zen mundu batean (demokrazia liberala) arlo nazionalen eta sozialean esentzia eraldatzailea galdu gabe jokatzeke modua ulertzeko.

Apurka-apurka, Ezker Abertzaleak bereganatu zituen lanabes teorikoen ahalmenak abertzaleen arteko elkarlanerako eremuak ireki zituen, eta Lizarra-Garaziko akordiorako baldintzak sortu ziren. Hasiera batean, proiektu horrek ilusioa piztu eta itxaropen handia sortu zuen, baina ibilbide luzeko esperientzia izan zitekeenak porrot egin zuen azkenean. Honako hauek izan ziren porrotaren arrazoi nagusiak: EAJren jarrera beldurtia, Ezker Abertzalearen errealismo politiko falta, eta proiektuaren dimentsio sozial ahula. Ondorio gisa esan dezakegu bai EAJri eta bai Ezker Abertzaleari heldutasuna falta izan zitzaiela apustu politiko hura aurrera eramateko.

Lizarra-Garaziko itunaren hausturak oso ondorio kezkagarriak izan zituen Ezker Abertzalearentzat. 2001eko hauteskunde autonomikoen ondoren La Casillako pabiloian ikusi zen irudiak oso argi erakutsi zuen hauteskundearen emaitzetatik harago zihoan krisi sakon baten aurrean geundela. Ezker Abertzalea berehala konturatu zen horretaz, eta une politikoak erakusten zizkion gakoetan sakontzeari ekin zion. Egoera politikoaren inguruan egin zuen hausnarketa sakonaren emaitza Anoetako Adierazpena izan zen. Bi helburu nagusi zituen: bere burua errealtate ulergaitz batean birkokatzea eta gatazkaren konponbiderako formulazio demokratiko bat garatzea.

Ezker Abertzaleak bere perspektiba politikoa garai berrietara irekitzen zuen neurrian, Estatuak inoiz baino oldarkorrago agertzen zen. Ezker Abertzalearen sormen politikoak eman zizkigun elementu ideologikoek geroago “Estatuarekiko konfrontazio demokratikoaren fasea” deituko geniona taxutuz hurbildu gintuzten, urratsez urrats eta ezinbestean. Estatuak, berriaz, mugimendu eta maniobra juridiko-politikoak egin zituen Ezker Abertzalea ostrazismora eramateko, eta legeaz kanpo utzi zuen.

Ilegalizazioak min handia egin zigun, hala antolakuntzaren arloan nola giza arloan. Ezker Abertzaleko militante eta koadro asko espetxeratuak izan ziren. Fase hartan, proiektio publikoa zuten jarduera politikoetan presente egoten ahalegintzen ginen, legez kanporatzeak zekarren ostrazismoa nolabait gainditzeko. Ahalegin gehienak hauteskundeetara bideratzen genituen, Ezker Abertzaleak ordezkaritza instituzionala behar baitzuen bere lan politikoa egin ahal izateko eta euskal gizartearen aurrean ikusgarria izateko. Estatuak, bere aldetik, ilegalizazioaren logika garatu zuen, hauteskundeetara aurkezten genituen zerrenda guztiak baliogabetuz. Horretarako propio sortutako armazoi juridiko salbuespenezko bat erabili zuen Ezker Abertzalea pisu gutxiko indar politikoa bihurtzeko. Hori izango zen Ezker Abertzalearen eta Estatuaren arteko dialektika ilegalizazioaren fase guztian.

Ezker Abertzalearen kontrako erasoaldi gogor horren atzean Estatu itun bat zegoen. Estatuko instituzio guztiak era koordinatuan lan egiten zuten salbuespenezko legediak uzten zituen zirrikituak gero eta estuagoak izan zitezkeen. Hedabideek salbuespenezko neurrien ariete gisa jokatzeko zuten eta gizartea “defizit demokratikoko” egoera batera ohitzeko lan egiten zuten. Hedabide horiek Ezker Abertzaleari ematen zitzaion babes oro kriminalizatzen zuten eta “etsaiaren zuzenbide penalarren” bultzatzaileak izan ziren.

Euskal Herrian, Ezker Abertzaleak Estatuaren erasoaren aurrean jasotzen zuen babesa ezin txikiagoa zen. Berak egin behar ziren aurre erasoei, ia bakarrik eta indarrak urriturik. Alderdi politiko gehienek egoera onartzen zuten edo, gutxienez, ulertu egiten zuten. Gainera, salbuespenezko egoerak ez zion kezka handirik sortzen euskal gizartearen gehiengo handi bati. Gizarte sektore abertzalea izan zen, ia bakarrik, zigorra pairatzeaz gain gizartearen mobilizazioa aktibatu zuena, bere burua babesteko. Enfrentamenduaren dialektikaren erdigunean Estatu eta Ezker Abertzalea zeuden, eta gainerako guztiek “barreratik” begiratzen zuten. Bazirudien enfrentamendurako esparru pribatua zela eta Estatuak eta Ezker Abertzaleak soilik parte hartzen zutela.

2004ko Martxoaren 11an Madrilén gertatutakoaren ondorioz, PSOE iritsi zen gobernura. Ordurako, Ezker Abertzaleak aurkeztua zuen Anoetako proposamen politikoa eta, haren garapenean oinarrituta, Espainiako Gobernuarekin negoziazio politikoak abiatzeko bidea prestatzen ari zen. Negoziazioak bi planotan garatuko ziren: gobernuaren eta Ezker Abertzalearen artean, gatazkaren erro politikoak konpontzeko; eta gobernuaren eta ETaren artean, gatazkaren ondorioak konpontzeko. Horrela, Loiolako negoziazioak hasi ziren.

PP eta hedabide handi gehienak gogor agertu ziren prozesu horren kontra, guztiak AEBek bultzatutako doktrina "antiterrorista" berrian kokatuta.

Ezagunak diren hainbat faktoreren eraginez, Loiolako proiektuak porrot egin zuen, eta Ezker Abertzalea berriz murgildu zen Estatuarekiko negoziazio saiakerek porrot egiten dutenean sortzen den giro tirabiratsuan. Kontraesanak agertu ziren eta, espazio politikoa berrantolatze aldera, abian jarri zen jarrera funtzionatzeko eta erabakiak hartzeko prozesua. Zerbait aldatu behar zelako ustea hedatzen hasia zen Ezker Abertzaleko giro politikoan. Ideia solteak ziren, bilbatu eta hezurmamitu beharrekoak, baina Ezker Abertzalearen etorkizuna ebatziko zuen ondorio batera iristen ari zen.

Laburbilduz esan dezakegu Loiolako prozesuaren porrotak bi ondorio nagusi utzi zizkigula: negoziazio estrategiaren amaiera izan zen eta ziklo historiko baten agorpena azkartu zuen.

Loiolaren ondoren Ezker Abertzalean eman zen hausnarketa prozesua mugimendu abertzalearen funtzionamenduaren logikan kokatzen da. Bere izaera sortzaileak bultzatuta, Ezker Abertzaleak hausnarketak egin ditu egoerak hala eskatu duen guztietan, eta funtzionamendu eredu horretatik sortu dira ideologikoki eta politikoki elikatu duten ekarpen politiko guztiak. Ezker Abertzalea hausnarketa-sorkuntza egoera horretan zegoelarik, Estatuak aurrera jarraitu zuen jazarpen eta eraso estrategiarekin. Oso ondo zekien Ezker Abertzalea zertan ari zen, eta ez zion inolako aukerarik eman nahi agertoki politiko berri bat planteatzeko. Estatuak fitxa mugitu zuen eta Segurako eta Bateraguneko operazioak egin zituen, eztabaida teoriko-politikoa eta haren garapena neutralizatzeko asmoz. Estatuak ziur zegoen ordura arte erabili zuen funtzionamendu eskemarekin garaile aterako zela, eta ez zuen nahi bere asmoak oztopa zitzakeen inolako aldaketarik edo ustekaberik. Helburu zehatz batekin kolpatzen zuen Ezker Abertzalea: faktore emozionala nagusitzea errealitatearen azterketa politiko arrazionalaren gainetik.

Hausnarketaren ondotik sorkuntza teorikoa etorri zen. Fase politiko berria argitu eta estrategia markatzen zuen dokumentu bat egin zen: "Zutik Euskal Herria". Dokumentu hori izango zen aldaketaren muina.

Ezker Abertzalearen jardura politikoaren sintesi saiakera bat eginez, esan daiteke garai bakoitzeko eredu ideologikoek eta unean uneko beharrek eskatzen zizkioten egokitzapenak egiten jakin duela. Askotan ia konturatu gabe, beste batzuetan eztabaida luzeen ondoren eta zenbaitetan errealitatea tematia delako eta ezlekuan dagoena bere tokian jartzen duelako, garai bakoitzeko

behar politiko eta sozialetara egokitzeko ariketa ordenatua egin du beti Ezker Abertzaleak, bere ekarpen teoriko eta politikoen bidez. Metamorfosi horrek ahalbidetu digu politikoki aktibo jarraitzea eta etorkizun ona edukitzea.

Demokrazia, burujabetza eta sozialismoa defendatuz, Ezker Abertzaleak erabaki egokiak hartu ditu beti. Trantsizioan demokrazia defendatu zuen, haustura demokratikoaren aldeko hautua eginez; NATOrri buruzko erreferendumean burujabetza defendatu zuen; soldadutzaren kontrako intsumisio mugimendua babestu zuen; herri protesta guztiak babestu ditu; alderdi politiko batzuen erabakiak baldintzatu ditu herri sektoreentzat kaltegarriak ziren neurriak inposatu nahi izan dituztenean; gai sozialen bultzatzailea eta defendatzailea izan da; beste herri batzuen sufrimenduarekin solidarioa izan da; autodeterminazio eskubidea gauzatu beharra sozializatzeko gai izan da eta herritar askoren aldarrikapena izatea lortu du; Euskal Herria terminoa sozializatu du, eduki politikoa emanez; herri aldarrikapen guztien alde egin du; baina, batez ere, egoerak hala eskatu duenean irakurketa eta ekarpen teoriko berritzaileak egiteko gaitasun politiko handia erakutsi du.

Perspektiba politikoa eta Ezker Abertzalearen teoria

Teoria abertzaleak eta bere ekarpen osagarriak aurrera egiten jarraitzeko perspektiba eman digute. Teoria politiko baten kalitatea aurreikuspenak egiteko eta etorkizuneko inkognitei erantzunak emateko gaitasunaren arabera neurtzen da. Erantzun horien ezaugarri nagusia gerta daitekeena aurreikustea izan behar da, eta ez guk zer gertatzea nahi genukeen esatea. Agian hori izan da azken garai hauetan egin dugun akatsetako bat. Sinesmen funko gisa proiektatzen ziren ilusio ideologikoen arabera jarduten genuen. Denboraren poderioz, interpretazio oker horren ondorioek erradikalismo-ortodoxiara eramán zuten Ezker Abertzalea, bere oinarri sozialeko sektore batzuetatik eta euskal gizartetik gero eta gehiago urrunduz.

Norabide oker hori zuzentzeko, ezinbestekoa zen teoriaren muinari sakontasunez begiratzea eta zertan huts egiten ari ginen aztertzea. Izan ere, gertaerek eta haien bilakaerak argi adierazten ziguten zerbait ez ginela ondo egiten ari. Gure pentsamolde politikoaren muinera egin genuen bidaia introspektibo horri esker konturatu ginen balioan jarri behar genuela betidanik Ezker Abertzalearen ezaugarria izan dena: herriarekin konektatzeko gaitasuna, Ezker Abertzalearen bihotzak euskal gizartearen bihotzarekin batera eta erritmo berean taupada egiteko gaitasun hori. Horixe izan da Ezker Abertzalearen

berezitasun nagusia bere ibilbide politiko ia osoan: euskal gizarte anitzarekin konektatzen jakitea eta herritarren aldarrikapen sozial eta nazionalekin bat egitea. Azken aldian, ordea, lotura hori galtzen ari zen.

Teoria abertzaleak bere barnean zeramatzan Ezker Abertzaleak bizi zuen fase politikoa argitzeko eta, horrenbestez, estrategiarik egokiena ezartzeko gakoak. Printzipioz jositako eta ortodoxia gutxiko teoria da; Herriarengan jartzen du bere helburu estrategikoak erdiesteko konfiantza. Horrexek ematen dio herri proiektioa, abangoardismo orotik urrun. Eta horiexek izan dira aldaketa prozesuaren giltzarriak: filosofia hori berrartzea eta errealtatearen nahiz une historikoaren azterketa serioa egitea.

Teoriak adierazten ziguna eta errealtate politiko eta sozialak eskatzen ziguna aintzat hartuz, Ezker Abertzaleak ekarpen berri bat egin zuen arlo teoriko-politikoan, bere jardute ildoak aldatzeko helburuarekin. Aldebakartasunez eta inoren zain egon gabe egindako aldaketa horrek berriz ere frogatu du sormen handia dugula teoriaren arloan eta gaitasun politiko handia taktikaren eta estrategiaren arloan. Ziaboga inori begiratu gabe eta inoren zain egon gabe egin behar genuen. Aldebakartasunez, arrakala bat ireki behar genuen Estatuari abantaila eta iniziatiba ematen zizkion sorgin-gurpil horretatik irteteko. Herrigintzan jardun eta gure herriarekin bat egin beharra zegoen. Horixe zen, eta orain ere bada, jatorrizko teoria abertzalearen oinarri filosofikoa. Zutik Euskal Herria dokumentua oinarri filosofiko horren gainean sortu zen.

Aldaketa

"Iraultza une historikoaren zentzua izatea eta aldatu beharrekoa aldatzea da". (Fidel Castro, 2000)

Aldaketa beharraren adierazleak

Loiolako prozesuaren hausturaren ondorioz, aspalditxotik aintzat hartu beharreko hipotesi gisa sumatzen zena premia bilakatu zen. Egiten genituen azterketa guztien ondorioek argi erakusten ziguten ziklo baten bukaerara hurbiltzen ari ginela. Beraz, Mugimendu gisa barneratu behar genuen etapa bat bukatua zela eta beste bat hasi behar zela. Hala ere, aldaketaren mekanismoak garatzea ez da zeregin erraza izaten. Guk norabide jakin batean jarri behar genituen gure barneko sinergia konplexuak, azterketen ondorioek erakusten ziguten norabidean hain zuzen ere. Ezker Abertzalearen baitan eztabaida egin behar zen honako ondorio honetara iristeko: estrategia aldatzea, komenigarria ez ezik, ezinbestekoa zen gure helburuak erdietsi ahal izateko. Baina ez zen erraza, zeren eta, hainbat urtez politikagintza eta haren garabideak era jakin batean ulertu izanaren ondorioz, Ezker Abertzalea etsipen espazio batean murgildurik zegoen, non etsipenak erresistentzia elikatzen zuen, eta alderantziz. Baldintza horietan, ez zen erraza aldaketa beharraren ideia garatzea. Sektore batzuen iritziz aldaketa ez zen egingarria, eta Ezker Abertzale osoaren energiak ezdeuskeriaren kale itsura eramango zituen eredu bat berreraikitza bideratzen zituzten beren ahaleginak. Gorpu bati musu eman arren, horrek ez zuen biziberrituko.

Errealitatea pasiorik gabe aztertuz gero, ukaezina zen Ezker Abertzalea bidegurutze baten aurrean zegoela. Bi aukera genituen: etapa historiko bat itxi eta paradigma berri bat sortu, edo ordura arteko ereduari eutsi, etorkizunari begira ez erantzunik eta ez itxaropenik eskaintzen ez zuen arren. Zirt edo zart egin beharra zegoen. Azterketa hotzak egiteko unea zen, egoerak hala eskatzen baitzuen. Lehenik eta behin, ahalik eta zorrotzen zehaztu behar genuen une hartan Ezker Abertzalea non zegoen eta zein ziren etorkizunerako aurreikuspenak. Hau da, objektua hartu (errealitate politikoa), eta galderak egin behar genizkion. Inkognita hori argitu ondoren, erantzunekin lan egin behar zen, eta zer egingo genuen erabaki.

Ezker Abertzalea nolako baldintzetan mugitzen zen kontuan izanik, erronka itzela zen une politikoak eskatzen zuen ariketa analitiko sakona era egokian egitea. Batetik, ilegalizazioaren ondorioak oso nabariak ziren, hala antolakuntzaren arloan nola lan ideologikoari zegokionez. Ilegalizazioak eta hari aurre egiteko moduak defentsa mekanismo kohesionatzaileak garatu zituzten Ezker Abertzalearen baitan. Gainera, jardunbide horrek azterketa objektiboak egiteko batere lagungarriak ez ziren ohitura batzuk ekarri zituen. Oso denbora luzez, “kontraesanik ezaren printzipioa” nagusitzen zen espazio batean kokatuak egon ginen. Hala ere, kontraesanak genituen eta aurre egin behar genien. Bestetik, Estatuak txibiaren taktika erabiltzen jarraitzen zuen, eta hedatzen zuen tinta toxikoak urrutira begiratzea eta horizontea arakatzea eragozten zigun.

Analisiaren maila guztiak lotuko lituzkeen izendatzaile komun bilatu beharko bagenu, honela laburbilduko genuke: garai hartan Ezker Abertzalea defentsiban zegoen, eta horrela ezinezkoa zitzaion inizatiba politiko hartzea ahalbidetuko zioten energiak sortzea. Estatuak ahultasun posizio batera eraman gintuen, eta denbora igaro ahala Estatu indartu egiten zen, eta Ezker Abertzalea higatu. Ekuazio horretan ezinezkoa zen gure interesen aldeko agertoki bat lortzea. Hau da, ezinezkoa zitzaigun indarrak metatzeko eta Estatuari kontraesanak sortzeko aukera emango zigun politika bat garatzea. Paradigma berri bat behar genuen horretarako, lehenik teorizatu eta gero praktikan jarri behar zen paradigma berri bat.

Kanpoko nahiz barneko zailtasun guztiak gaindituz, eztabaida egin genuen. Errealitate sozio-politikoari egin genizkion galderen erantzunak erabatekoak eta argigarriak izan ziren. Guztiek norabide berbera erakusten zuten: Ezker Abertzalearen ildo politiko eta estrategikoa aldatu beharra zegoen.

Baldintzak bazeuden, premiazkoa zitzaigun, garai berria gidatzeko prest zeuden militante saiatuak genituen, gizarteak hala eskatzen zuen, Euskal Herriak hori behar zuen. Aldaketa ezinbestekoa zen, eta egin genuen.

Etaparen hasierako testuinguruaren argipena

Aurreko etapa guztian Estatu bere ideologia inposatzen saiatu zen, bere tresneria guztia baliatuz. François Châtelet-ek dioenez (Ideologien Historia), Estatuaren ideologia -edozein Estaturena- “Batasunaren” ideologia da, eta asimilazioranzko prozesu geldiezin bat jartzen du abian “Batasun” horretatik ihes

egiten duen edozeren aurka. Denbora honetan guztian, hori izan da Estatuaren helburu eta behar nagusia Ezker Abertzaleari dagokionez: asimilazio ideologikoa.

Ezker Abertzaleak, ordea, gogor egin dio asimilazio saiakera horri, eta agerian utzi du Estatuaren armazoi politiko-ideologikoa. Menderatze edo asimilatze prozesu guztietan, Estatuak kontrol politikorako metodo bi erabiltzen dituzte: hegemonia eta koertzioa. Hegemonian, sisteman parte hartzen duten alde guztiei onurak ekartzen dizkien eredu bat bultzatzea lortzen du talde menderatzaileak, bere estrategia politikoaren bidez. Hau da, talde menderatzaileak ez ezik, talde menderatu batzuek ere onurak jasotzen dituzte "gauzen egoera"tik (EAJren irudia ikus dezakegu "ispilu joko" horretan). Beraz, hegemonian, hegemoniek koertzioa erabili beharrik gabe menderatzen du. Baina hegemoniaren bidezko menderatze sistemak bere fruituak ematen ez dituenean, Estatuak hegemoniarik gabeko menderakuntza aplikatzen du, hau da, koertzioa.

Eredu hori Euskal Herriari aplikatzen badiogu, oso argi identifikatuko ditugu alde guztiak: Estatu hegemon gisa; EAJ hegemoniaren bidezko menderakuntzaren eraginpean; eta Ezker Abertzalea asimilatu gabe eta koertzioa (aurrepolitikoa/ aurredemokratikoa) aplikatuz bilatzen den menderakuntzaren eraginpean.

Posizioen eta garabideen dialektika horren baitan, alde bakoitzak jardun-esparru orokorrean nagusitasun posizio bat lortzeko egokienak iruditzen zitzaizkion baliabide politiko eta ideologikoak erabili ditu. Eredu politikoen arteko konfrontazio fase luze baten ondoren, etapa baten bukaerara iritsi gara, eta hala Estatuaren eredu nola Ezker Abertzalearena agortuta daude. Bi aldeek higadura jasan dute. Errealitate politikoan ematen den posizio borroka xake jokoaren antzekoa da, eta bai Estatuak eta bai Ezker Abertzaleak argi daukate xake taulan birkokatzeko unea iritsi zaiela.

Estatuak higadura ikaragarria jasan du. Euskal disidentziaren aurkako borrokan bere aparatu eta instituzio guztiak lokaztu ditu eta, horren ondorioz, sinesgarritasun guztia galdu dute. Gaur egun pairatzen duen krisi existentziala higadura horren erakusgarri bat da. Une honetan ez dauka sistema oxigenatzeko gaitasunik (PP eta PSOE arazoaren parte dira). Krisi ekonomikoa, ustelkeria orokorra eta sistemaren ospe galtzea direla eta, hegemoniari eustea ahalbidetuko dion eredu berri bat eskaintzera behartuta dago. Trantsizioan eraikitako ituna eta eredu pitzatuta daude. Datozen hilabete edo urteetan, estatuko indar politikoen arteko barne borrokak eredu berriaren diseinuaren eta ezaugarritzearen ingurukoak izango dira. Inkognita Trantsizioaren garaiko berbera izango da: erreformaren erreforma edo haustura demokratikoa.

Antonio Gramsci-ren ideia bat erabiliko dugu egoera hori laburbiltzeko, gure testuingurura ekarrita: Espainiako estatua, hura zuzentzen eta ordezkatzeko duen klasea, krisian dago (krisi organikoa). Eta krisi horren arrazoiak honakoak dira: klase menderatzaileak aginpidea galdu du klase gidari gisa, eta klase menderatzailea besterik ez da orain.

Ezker Abertzaleak ere higadura handia jasán du. Inolako triunfalismorik gabe esan dezakegu plano ideologikoan Estatuarekiko abantaila posizio batean gaudela. Gure apustua etorkizunean kokatzen da, eta Estatua atzera begira dago, espainiar erregenerazionismoaren fase guztietan emaitza berdina izan delako: Espainiak bere burua kopiatzen du.

Ezker Abertzalea sorkuntza fase batean dago, baina baita trantsizio fase batean ere. Politikagintza eta haren formak interpretatzeko era ezin da borondate hutsez aldatu, ez da borondate kontua. Errealismoz eta sen onez egiten ari gara lan hori. Proiektu berri bat osatzeko ezinbestekoa da inkognitak argitzea eta jardueraren faseak ezartzea. Fase bakoitzak gáinditu beharreko kontraesanak planteatzen dizkigu. Historiaren eskailera-mailak dira, gure Historiaren eskailera-mailak, eta banan-banan igo behar ditugu. Aurrekoak gáinditu gabe azken eskailera-mailara edo, Marxek esango lukeen bezala, azken kontraesanera igo nahi izatea bakarkako karta jokoan tranpak egitearen parekoa da. Garaipena ez dago aldezturik ebatzita; sortzen zaizkion kontraesanak hobekien planteatu eta gáinditzen dituenak irabaziko du. Kontraesan nagusi bakoitzari garai historikoa bat dagokio. Abiatu berri dugun garai historikoa Euskal Estatu independentearen sorrerarekin bukatu behar da; horixe da Ezker Abertzalearen nahia.

Non gaude?

“Badago lurruna, elektrizitatea eta energia atomikoa baino ahaltsuagoa den indar eragile bat: nahimena”. (Albert Einstein)

Ezker Abertzaleak erronka handi bat dauka etapa berri honetan: independentziarako eta sozialismorako euskal bidea definitzea eta finkatzea. Fase berri honi aurre egiteko ditugun baldintzak ez dira egokienak, ez barne mailan eta ez kanpo mailan. Barne mailan ilegalizazioak belaunaldien arteko etena eragin digu; azken urteotan transmisiorik egon ez denez, zaila zaigu sektore abertzale batzuekin konektatzea. Kanpo mailan, berriz, ilegalizazioak eta Estatuaren diskurtso hegemonikoak eragina izan dute gizartearen parte batek Ezker Abertzaleaz duen irudi ezkorrean.

Hala ere, oztopoak oztopo, argi daukagu zer egin behar dugun proiektu berria (Euskal Bidea) definitzeko orduan: herri boterea eta botere instituzionala sortu, euskal bide demokratikoaren ildotik hegemonia kultural, etiko eta soziala eraikitzeko.

Proiektu berriaren sortze prozesuan hainbat fase gainditu beharko ditugu antolakuntzaren arloan. Erakunde politiko orok espazio publiko eta politikoan duen zeregin nagusia gizartea antolatzea da. Hala ere, ilegalizazioaren ondorioz zailtasun handiak genituen eginkizun hori betetzeko, eta ezinbestekoa zitzaigun marjinazio politiko eta sozialaren mundu ilunetik irteteko moduak aurkitzea. Herria antolatuta ez badago, ezinezkoa da ezein proiektu politiko aurrera eramatea. Zailtasun juridiko eta tekniko guztiak gaindituz, helburu hori lortu genuen, baina oraindik ez dago erabat finkatuta: Damoklesen ezpatak Ezker Abertzalearen buruaren gainean jarraitzen du.

Legalizazioa lortutakoan, Ezker Abertzaleak barne mailako antolakuntza zereginei ekin zien: eztabaida elikatzeke dokumentu politikoak sortu; barne indarrak antolatu eta egitura exekutiboak eratu; prozesu berriaren zuzendaritza osatu; aliantza politikoak ezarri; hauteskunde erronkei koalizio baten bidez aurre egin; Fronte Zabala sortu aliantzen proiektua finkatzeko. Laburbildurik, esku-hartze eredua diseinatu eta Ezker Abertzale berriaren proiektzio politiko eta soziala garatu.

Estatuak ezin gogorrago erantzun zion Ezker Abertzalearen estrategia berriari, ziklo aldaketa eta horrek zekarrena aintzat hartu gabe. Ordura arte bezala,

aurrepolitikan/aurredemokrazian kokatzen zuen Ezker Abertzalea, legearen aplikazioak kodifikatu gabeko bulkada politikoei erantzuten dien espazio batean, alegia. Estatuak deseroso sentitzen zen Ezker Abertzalearen proiektu berriarekin. Are gehiago, ez zuen inola ere uste Ezker Abertzaleak une historikoa ulertzeko eta bere kontraesanak aldaketa estrategiko baten bidez gainditzeko gaitasun politikoa izango zuenik.

Estatuak ez ikusiarena egiten du agerikoa eta nabarmena denaren aurrean eta, Ezker Abertzalea garaitzea eta asimilatzea lortu ez duenez, proposatzen duen dialektika hura ahultzea edo apurtzea da. Estatuak ondo ezagutzen ditu abertzaletasunaren subkontziente kolektiboa eta haren mekanismo psikologikoak. Horregatik, oso emozionalak diren arloetan jotzen saiatzen da, oinarri sozialean kontraesanak sortu nahirik. Hala, jarduera agenda zehatz bat ezarri du (errepresioa, probokazioa, kriminalizazioa...) porrotaren eta urduritasunaren irudia sortzeko asmoz, hau da, garaileak eta garaituak daudela sinestarazteko. Ezker Abertzalearen autoestimua kolpatu nahi du, proiektu berriaren inplementazioa eragozteko eta, ahal badu, zatiketa eragiteko.

Ezker Abertzaleak inizatiba politikoarekin eta burua hotz erantzun behar dio errealtate horri. Ezin da erori beroaldiaren tranpan, ezin da lerratu barrena hustearen baliabide primarioa. Beti egongo da norbait Ezker Abertzaletik alde egin behar dela aldarrikatuko duena, justuen erretrorikara joz eta nahikorik egiten ez duela argudiatuz. Hala ere, jarrera iraultzaile batetik, helburuen, gizartearen eta baliabideen azterketa zorrotz batetik, argi eta garbi esan daiteke Ezker Abertzalea ezegonkortzea edo zatitzea ekintza kontrairaultzailea dela, oker historikoa izateaz gain. Ezin dugu ahaztu Ezker Abertzalea dela garaipenerako baldintza.

Prozesuaren ezaugarritzea

Antolakuntzaren arloko kontraesan urgenceenak gaindituta, orain prozesu berriaren ezaugarritzea azaldu beharra dago. Garrantzi handiko zeregina da, bete-betea sartzeko delako dialektika sozialean.

Prozesuaren ezaugarritzeak bi eremu nagusi biltzen ditu: barnekoa eta kanpokoak. Barnekoa proiektuaren lehen fase honetan landuko ditugun elementu ideologiko eta politikoekin lotuta dago; kanpokoak elementu horiek gizartearen inplementatzeari dagokio.

Barne prozesuari dagokionez, Ezker Abertzalearen oinarri militante eta soziala nola dagoen jakin behar dugu. Elementu ideologiko eta politikoez hitz egitea

emozioez eta pertsonen hitz egitea da. Batzuei kosta egiten zaie prozesuaren parametro guztiak ulertzea. Laino artean galduta dabilta edota zalantza jositik daude. Beraz, elementu ideologiko eta politikoen zeregina hau izan behar da: orientatzea, mezu eta ideia argiak plazaratzea, galduta dabilenari laguntzea, lasaitasuna ematea, zalantza dituztenekin ulerkeri jokatzeko eta hitz atseginak erabiltzea, segurtasuna eskaintzea eta konfiantza eskatzea. Prozesuaren zuzendaritzak militantzia eta oinarri sozial abertzaleari dion maitasuna argi eta garbi erakusten eta adierazten jakin behar dugu.

Kanpo prozesuari dagokionez, gure gizarteko sektore erreferentzialak zein diren jakin behar dugu, eta beraiekin konektatu, errealtatearen hareara jaitsi, gure asmoak azaldu eta haien laguntza eskatu, programa egingarriak eskaini, egiten diegun eskaintzaz nahiz Ezker Abertzaleaz izan ditzaketen zalantzak ulertu. Kontuan izan behar dugu nolakoa den gure interakzioaren subjektutzat hartzen dugun gizartea. Gaur egun, gizarte hori bere etorkizunaren beldur da, neoliberalismoaren erasoak pairatzen ditu, desegituratuta dauzka autodefentsa moldeak, ez du konfiantzarik ordena politiko sistemikoan, bere autoestimua berreskuratu nahi du eta, azken finean, unea eta erantzunak argitzeko laguntza behar du.

Bi atal horien edukia kontuan hartzen ez badugu, konfigurazioaren gainerako atalek ez dute inolako zentzurik izango. Giza osagaia Ezker Abertzalearen proiektu berri osoaren erreferentea eta magma izan behar da. Horretarako, kontzeptu berri bat geureganatu behar dugu: forma ideologikoen “zentzu komuna”. Hori izan behar da gure erreferente sinbolikoa.

Ezaugarritzearen abiapuntua gure ekinbide politikoaren jardura eremua funktatzea izango da. Hau da, ondo zehaztu behar dugu zein indar sozial izango den fase berri honen subjektu politikoa. Aurreko etapen, gure ereduaren ezaugarrien ondorioz, Ezker Abertzalea bera zen gure “humus” soziala, baina, sozialki mugatutako espazioa denez, gure “guetto” ere izan zen. Proiektu politiko berrian euskal gizartea izango da gure “humus”. Horrela, guettoak guk geure buruari ezartzen dizkiogunak izango dira.

Prozesuaren konfigurazioan metodo berriak proposatu behar ditugu, forma berriak, mezu berriak... Horrek guztiak helburu bera izango du: gizartearekin konektatzea. Nolanahi ere, berritasun guztien atzean oinarri ideologiko seguru bat egon behar da, gure erreferente etengabea izango dena, etapa berri honetan altxatuko diren ekaitzetatik babestuko gaituena. Oinarri ideologiko horren funtsa Ezker Abertzalearen DNAa (Independentzia eta sozialismoa) eta haren

bizkarrezurra osatzen duen teoria dira. Kontraesanak sortzen direnean teoria horri begiratu beharko diogu, erreferente gisa eta kontraesanak gainditzeko tresna politiko-ideologiko bezala, baina ez zaharra birsortzeko, berria sorrarazteko laguntza gisa baizik.

Ezker Abertzalearen proiektu politiko berriak nortasun politikoa eta garabideak ematen dizkion indar-ideia nagusi bat dauka: Euskal Bidea.

Euskal Bidea ez da programa itxi bat; ekarpen berriei irekita dagoen proiektu bat da, helburua bidea egitea delako. Praxiak esango digu zer gehitu behar diogun. Euskal Bidea garatu beharreko ideia bat da, epe laburra gainditzeko duena eta Ezker Abertzaleari proiektzio sozial zabala emango diona. Helburu nagusia: Euskal Herrian demokrazia garatzea.

Euskal Bidea erreferentziazko dokumentu bat da, norabide aldaketa estrategiko bat laburbiltzen duena, eta hortik abiatuta hausnartu behar dugu Ezker Abertzaleak egoera politiko berrian erabiliko dituen baliabide politiko eta ideologikoak zeintzuk diren eta zer paper jokatuko duten. Hau da, hausnartu behar dugu proiektu berri honetan nola ezaugarritzen diren Ezker Abertzalearentzat oso garrantzitsuak diren elementu batzuk: indar metaketa, independentzia, demokrazia, sozialismoa eta militantzia. Elementu horiek guztiek Ezker Abertzalearen DNAa osatzen dute, eta eduki ulergarritz hornitu behar ditugu, hau da, eguneratu behar ditugu, etapa honetan eraginkorrak izan daitezen. Zentzu horretan, are indar handiagoa hartzen du lehen azaldu dugun kontzeptuak: forma ideologikoen zentzu komuna.

Hegemonia

Hegemonia Ezker Abertzaleak indar soziala metatzeko baliatuko duen elementu ideologikoa da. Funtsean, prozesu psikologiko bat da. Prozesu horren bidez, gizartearen parte handi batek bere egiten du, ia ohartu gabe, pentsatzeko eta jokatzeko era partikular bat. Gramsci dugu ideia horren adierazle nagusia, eta iraultzaren lege orokor bat garatuz azaltzen digu hegemoniaren esanahia.

Estatuarekiko antagonismoa xake partida baten modukoa da, baina taula, piezak eta arauak beraiek jartzen dituzte beti, boteredunek, Estatuak. Gure trebetasun politikoa baldintza horietan eta arau horiekin jokatzeko jakitean datza. Partida desorekatu horretan Ezker Abertzaleak ezin du bakarrik jokatu, aliatuak behar ditu. Eta horixe da hegemoniaren funtsa: aliantzak, konplizitateak eta proiektzio sinboliko partekatuak bilatzea.

Praktikari dagokionez, bi eremutan sortu behar dugu hegemonia: Ezker Abertzale osoa biltzen duen barne eremuan eta gizartea biltzen duen kanpo eremuan.

Barne eremuan, Sortuk hegemonia sortu behar du Ezker Abertzalearen oinarrian. Sortuk bere gain hartzen du proiektu honen motorra izatearen ardura eta, beraz, Ezker Abertzalean egon daitezkeen arazoak detektatu eta irtenbideak bilatu behar ditu. Etapa bakoitzak bere arazoak ditu, eta konpontzeko tresna egokiak sortu behar dira. Oraingo etapa honetan, esanguratsua dirudien arazo bat dugu: Ezker Abertzaleko sektore jakin batzuek proiektu berriari eta haren buruzagitzari dieten atxikimendu falta. Horren arrazoiak askotarikoak dira (ezjakintasuna, desmotibazioa, desideologizazioa, erresumina...); guztiei aurre egin behar diegu, eta konponbideak aurkitu. Arazoak konpondu ahal, Sortuk Ezker Abertzalean duen pisu espezifiko goraka joango da. Kontzeptu politiko bat erabiliz, honela definitu ahal dugu Sorturen zeregina: “atzetiko lidergoa” egitea.

Kanpo eremuan, EH Bildu Fronte Zabalaren erreferentzia da antolakuntzaren arloan eta, beraz, burujabetzaren, independentziaren eta sozialismoaren ideia garatzea ahalbidetuko duten espazioak irekitzeko tresna ideologiko eta antolakuntza molde egokiak erabili behar ditu. Orain arte, espazio sozial batzuk itxita egon dira guretzat, beste alderdi batzuenak zirelako edo antolatuta ez zeudelako. EH Bilduk espazio sozial horiek ireki behar ditu. Aurreko atal batean esan dugun bezala, hor egon arren ezkututzen zaigun hori bilatu behar dugu. Kontzeptu orokor gisa, esanahi guztia biltzen duen ideia bat dago: sufritzen dutenekin egon behar dugu. Gizarteko sektorerik behartsuenetan eragina izango duten ekintza-politikak sortu behar ditugu, sektore horiekin bildu behar gara, entzun behar diegu, irtenbideak proposatu behar dizkiegu; azken batean, beraiekin gaudela sentiarazi behar diegu.

Lehen esan dugun bezala, gizartea da proiektu berriaren humusa, hor ernamuindu behar da proiektu berria. Horregatik, ahalegin berezia egin behar dugu gizarteak esaten duena entzuteko eta ekimen politiko eta sozialen bidez erantzuteko. Lan ideologikoa eta lan politikoa da. Eginbehar horrek bi printzipio izan behar ditu gidari: ulertzea-azaltzea/arnastea-inspiratzea. Unea ulertu, eta azaldu egiten da; gizarteak esaten duena arnastu, eta hortik sortzen da inizatiba politikoa edukitzeko inspirazioa.

Independentzia

Ezker Abertzaleko militantziak independentziaren ideia azaldu behar izan duenean, ia beti plano idealista batean kokatu ditu azalpenak. Proiektu berriak, ordeak, formulazio zabalago bat eskatzen digu. Independentziaren ideia soilik esentzialista-identitarioa gaituz, ahalik eta premiarik gehien uztartuko dituen ideia irekiago eta pluralago batera pasatzeko unea iritsi zaigu. Hau da, eduki eta interes sozialak barnebilduko dituen ideia batera pasatu behar gara. Eskoziarrek “guztien ongirako independentzia” esaten diote formulazio horri. Beste era batera esanda, arnastu-inspiratu printzipioa aktibatu behar dugu, Ezker Abertzaleak “bizimodu ona” esaten dion horren filosofia osoa jasoko duen programa bat sortzeko. Horixe da gure erronka nagusietako bat etorkizunari begira.

“Bizimodu ona”ren filosofia ezin da izan erretorika huts bat elikatzeko soilik balioko duen kontzeptu orokor bat. Edukiz bete behar da eta, lehen esan dugun bezala, sozialismoa egiteko erarik onena sufritzen dutenekin egotea da: baliabiderik gabeko sektoreekin, langile prekarizatuekin, langabeekin, gizartetik kaleratutakoekin, pentsiodunekin, ikasleekin... Ez da zenbaki kontua, jarrera kontua baizik. Gizarteak argi ikusi eta ulertu behar du Ezker Abertzalearen politika soziala benetako beharra dutenei zuzenduta dagoela. Horrek sortuko du independentziaren ideia elikatzeko beharrezkoa den benetako hegemonia. Izan ere, norbaitek laguntza jasotzen duenean, mentalki jende asko jartzen da haren lekuan.

Baliabide intelektuala hau izango litzateke: kontzientzia ideologikoak izaera “ius naturalist”-eko independentzia baten ideiarekin bidez integratzea ezinezkoa bazaigu, saia gaitezen proiektura hurbilazten eredu sozial berri baten ideia garatuaren bidez.

Demokrazia Euskal Herriarentzat

Etaparen honetako tresna nagusia, eta beste etapa guztien bizkarrezurra izango dena, demokrazia da. Prozesu sozial eraldatzaile bat inplementatu behar da; euskal demokrazia oinarritzko kontzeptutzat harturik burujabetzaren eta erabakitze eskubidearen printzipioak garatzen eta barneratzen joango den prozesu bat.

Demokraziarako euskal bideak ezaugarri nagusi bat izan beharko luke: gaur egungo funtzionamendu moldeekiko haustura demokratikoa. Horregatik, prozesu demokratiko iraultzaile gisa ezaugarritu beharko da.

Gaur egungo sistema politiko ordezkatzailleak ez dira demokratikoak. Ez dira demokratikoak alde baten interesak soilik ordezkatu eta defendatzen dituztelako: kapitalismo neoliberalaren interesak. Oro har, sistema ordezkatzailleetan politika ez dute herritarrek ekoizten, politikari profesionalek baizik, haiek bakarrik. Horrela funtzionatzen du akumulazio sistema kapitalistak, eredu neoliberalen batik bat. Sistema horrek bide bakarra dauka nahierara garatu ahal izateko: politika klase pribilegiatu baten interes ekonomikoen menpe jartzea.

Eredu neoliberalaren interesek bahituta daukate politika ordezkatzaillea. Bere esplotazio lana egin ahal izateko, eredu neoliberal parlamentuek baliatzen da bere klase interesak babesten dituzten legeak sortzeko. Horrenbestez, merkaturak da zuzenbide iturri, eta ez herria eta haren beharrak.

Politikaren jatorrizko zentzua berreskuratu behar da. Hori izan behar da euskal eredu demokratikoaren funtsa. Gure ereduak, gizartearen autoeraketan oinarrituta, bizitzako arazoak konpontzeko balio behar du. Ezker Abertzaleak borrokatu egin behar du ekonomia politikaren menpe egon dadin, eta ez alderantziz. Politika herri klaseen zerbitzura egon behar da, boto emaile hutsak direnak subjektu politiko bihurtuz, hau da, boterearen subjektu bilakaraziz. Benetako demokraziaren ezaugarritze horrek gaur egungo politikaren formak eta mamia aldatzea eskatzen du. Guk iraultza demokratikoa esaten diogu aldaketa horri.

Proiektu honen planteamendu orokorrak (demokraziarako euskal bidea) jarduera esparruak zein diren erakutsiko digu. Hau da, Euskal Herrian demokrazia eraikitzen joateko landu behar diren jarduera eremu politiko eta ideologikoak definitu behar ditugu. Eremu horiek ideia nagusi baten inguruan definitzen dira: demokraziaren monokultura alboratu behar da. Demokraziari dagokionez ez dago ikuskera bakar bat, praktika bakar bat edo zilegi den diskurtso demokratiko bakar bat. Aurre egin behar diogu kontrakoa dioen ideiei. Planteamendu hori era zabalago batean ulertzeko, Antoni Aguiló azaltzen digun ereduaz baliatuko gara (Antoni Aguiló Coimbrako Unibertsitateko irakaslea eta aldaketa prozesuetan aditua da). Hiru garabide proposatzen ditu eredu horrek, eta gure kasuan garrantzi berezia duen laugarren bat gehituko diogu guk:

1. Demokrazia deskolonizatzea. Demokrazia neoliberalismoaren eredu eksklusiboa dela dioen ideien kontra borrokatzea.
2. Demokrazia despatriarkalizatzea. Politika ordezkatzaille eta alderdikoiaren barruan nahiz kanpoan gizonek ezartzen dituzten menderakuntza harremanak argitara ateratzea eta eraldatzea.

3. Demokrazia desmerkantilizatzea. Ekonomiak politikaren gainetik daukan nagusitasuna desagerraraztea, kontrol soziala indartzea eta demokrazia elite ekonomiko eta politikoen gainetik jartzea.
4. Demokrazia euskalduntzea.

Lau puntu horiek beste proiektzio bat ematen diote demokraziari, Troikatik eta erabakigune ekonomiko neoliberaletatik inposatzen zaigunaz bestelakoa. Ezker Abertzaleak bere indar guztiekin borrokatu behar du demokrazia eredu horren aurka, eta indar guztiekin ekin behar dio Euskal Herriarentzako proiektu alternatiboa osatzeari. Proiektu horretan independentzia nazionala eta berdintasun soziala izan behar dira garapen demokratikoaren ardatzak. Euskal demokrazia aldarrikatu behar dugu, inolako konplexurik gabe.

Sozialismoa

Proiektu politiko eratzaile batean sozialismoaz hitz egitea gizarteaz, ekonomiaz, klase sozialez, pertsonaz, ideologiaz, taktikaz eta estrategiaz hitz egitea da, besteak beste. Baina, batez ere, esperientziez eta garabideez hitz egitea da. Esperientzia horiek oso datu baliotsuak ematen dizkigute egoera aztertzeko eta jarduera eredu berriak praktikan jartzeko.

Bere proiektzio sozialistan, Ezker Abertzaleak oso argi dauka zer ez duen izan nahi, eta, sozialista izanik ere, ez hain argi zer izan behar dugun espazio ideologiko horretan. Ez dugu "ezker zaharra" izan nahi, ezta herri klaseei traizio egingo dien indar politiko erreformista bat ere. Bi espazio horien artean garatu nahi dugu gure sozialismo eredua. Independentea dei geniezaioke guk eraiki nahi dugun sozialismoari.

Ezker Abertzaleak uste du teoria sozialak etengabe eguneratu behar direla. Hori da haien mamia kontserbatzeko eta garabide modernoetan proiektatzeko era bakarra. Horregatik, bere diseinu sozialistan, Ezker Abertzaleak aurre egin behar dio ziurgabetasunari. Baina, hain zuzen ere, ziurgabetasun horretatik etor zitekeen ahultasuna da indartzen gaituena, nortasuna praxian hartzera behartzen baikaitu, eta ez aparatu eta porrot egindako ortodoxia zaharkituetako ika-miketan.

Ezker Abertzaleak inoiz ez du onartu, eta orain ere ez du onartzen, Historiak gaingitu dituen metodoak, garabideak eta azterketak erabiltzen dituen sozialismo eredu bat. Bizitza bihurtuko den praktika sozialista bat nahi dugu, esperimentatuko duena, praktika herritarrak irekitako espazio berriez

konturatzeko gai izango dena, hegemoniaren praxian heziko dena, subjektibitate kolektibo zabal baten garapena ahalbidetuko duena eta bere baitan humanismo erradikala eramango duena.

Esan dugu ez daukagula oso argi zer izan nahi dugun, eta zalantza horrek intelektualki biziberritzen gaitu eta arazo zehatzei erantzun orokorrak ematen dizkieten ideia eta kontzeptu itxietatik urruntzen gaitu. Ezker Abertzalea XXI. mendeko sozialismoaren erronkaren aurrean indartsua izatera ausartzen da, prozesu sozialetan dimentsio berriak esploratzeko gai sentitzen da, eta horrek prozesu horietako partaide izatea eta proposamen teoriko eta politiko garatuagoetarantz aurrera egitea ahalbidetzen digu. Ez dugu izan nahi aparatuaren eta forma teoriko fosilduen sozialismoa. Ez dugu dogmarik nahi. Esperimentatu eta arriskatu nahi dugu. Ezker Abertzalea ideologikoki indartsu sentitzen da berria esperimentatzeko, zaharra ezagutzen dugulako eta badakigulako nora garamatzan: autokonplazentzia doktrinarioan oinarritutako sozialismo ezdeus batera.

Oraindik sorkuntza teoriko handia behar da XXI. mendeko sozialismoa osatzeko. Gure inguruko espazio sozialean forma berriak sumatzen dira, baina oraindik ez dira zehatzak. Boterearen eta gizartearen arteko dialektika aldatzen ari da, oraindik ere menderakuntza klasikoan oinarritzen den arren. Botereak erantzun sozialaren ohiko moldeak neutralizatzen jakin du. Jarduera paradigma berri baten hastapenetan gaude, eta haren edukia ulertu behar dugu. Ezker Abertzalea indartsu eta arduratsu sentitzen da datozen urteetan izango ditugun erronka horien aurrean, eta herriari, haren kulturari eta haren forma sozialei itsatsita egongo den euskal sozialismo bat egituratzeko eta garatzeko erabiliko ditu bere baliabide intelektual guztiak eta antolakuntza tresna guztiak.

Horri dagokionez, helburu estrategikoen ezaugarriak eta hurrenkera argitu behar ditugu. Argi eduki behar dugu zertaz ari garen independentziaz eta sozialismoaz hitz egiten dugunean. Aurreko etapan, orduko konfigurazioaren ondorioz, independentzia eta sozialismoa denbora plano berean kokatzeak ez zigun kontraesanik sortzen. Gaur egun, ordea, komenigarria izango litzateke helburuak argitzea eta zein ordenatan uztartzen diren zehaztea. Etapa honetan nahi dugun sozialismoari buruzko teoria bat edukitzeak erreformismo antzuetan ez erortzeko gida gisa balioko digu. Gurea izaera demokratiko iraultzaileko sozialismoa izan beharko da. Sozialismoaren ideia horren ildotik bagoaz, burujabetzaren eta independentziaren ideia indartuko dugu. Era berean, aliantzak egiteko orduan zertan izan gaitezkeen malguak jakingo genuke, erreferentea definituta egongo litzatekeelako. Hitz batean, independentzia

euskal sozialismoaren garapenaren lorpen gisa planteatu beharko litzateke. Horrenbestez, euskal eredu sozialistaren garabideek aintzat hartu beharko lituzkete proiektu independentistaren beharrak (aliantzak, metodoak, diskurtsoak, mezuak...). Hau da, proiektu iraultzaile demokratiko sozialistaren barruan independentzia izango da lehen geltokia.

Diskurtsoan beharra prozesuari bultzada emateko

Arlo sozial batzuetan praktika diskurtsiboak dira nagusi. Politika dugu arlo horietako bat. Diskurtsoa inoiz ez da neutroa, karga ideologikoa darama beti, ideien aldeko borrokaren adierazpidea delako. Horregatik, diskurtsoaren jasotzaileak identifikatu behar ditugu, eta nabarmendu nahi ditugun ideiak indartu. Diskurtsoa ideologikoki desberdinak edo elkarren aurkakoak diren taldeei zuzenduta dagoenean, kontuan hartu behar da guztiek ulertuko dituzten ezaugarri batzuk izan beharko dituela, hasiera batean elkarrekin komunikatu ahal izateko. Prozesu berria estilo diskurtsibo berri batean txertatu behar da. Diskurtso orokorra freskoa izan behar da, eta, horretarako, kontzeptuak landu behar ditugu: gizarteak bere egingo dituen kontzeptuak, porrot egindako edo gaizki ikusitako proiektuekin lotzen ez diren kontzeptuak.

Gure ustez, lau diskurtso eredu sortu eta egituratu beharko lirateke, bakoitza bere estilo propioarekin baina guztiak prozesuaren ideia komunean oinarrituak.

1. Diskurtso orokorra, printzipio ideologikoei lotua (independentzia, sozialismoa, feminismoa, euskara) baina Ezker Abertzalearen eredu politiko berrira egokitua. Diskurtso fresko eta moderno.
2. Diskurtso politiko-soziala, "euskal bidea" proposamenari lotua eta haren edukia adieraziko duena.
3. Espainiaren alde iluna agerian jartzeko diskurtsoa (ustelkeria, porrot egindako eredu ekonomikoa, alternatibarik eza, langabezia, lan erreforma...).
4. Ezker Abertzale osoarentzako eta militantziarentzako diskurtsoa. Prozesu iraultzailea da. Fase honetarako metodoak demokratikoak izan behar dira. Abangoardiaren kontzeptuarekin apurtu. Militantzia kuantitatiboa, ez kualitatiboa.

Militantzia

"Itsaso zakarrak marinel onak sortzen ditu".

Jarduera politikorako eredu berriak aldaketak ekarri behar ditu Ezker Abertzalearen jardunbidea osatzen duten elementu guztietan, eta militantzia da elementurik garrantzitsuenetako bat. Militantziak funtsezko eginkizuna betetzen du Ezker Abertzalean. Ezker Abertzalea ez litzateke ulertuko militantziarik gabe.

Ezker Abertzaleko militantziak garrantzi handiko zeregin bi ditu proiektu berri honetan: jarduera eredu berri honen genetika politikoa barneratzea, eta proiektuaren motorra izatea. Bi zeregin horiek estu loturik daude. Lehenik forma ideologiko berriak asimilatu behar ditugu, gero eremu politiko eta sozialean proiektatu ahal izateko. Kontua ez da ideologiaz aldatzea, baizik eta haren formak ezagutza berri bat eraikitzeke erabiltzea. Sortu nahi dugun ezagutza espazio berri horretan, ideologiak eta errealtatearen eraikuntza sozialak ("zentzu komuna") azterketetarako eta ekintzarako harreman interaktibo bat ezarri behar dute.

Pertsona guztiok ideologia deritzogun mundu erreferentzial bat eraikitzen dugu gure buruan, eta erreferente hori mundu errealekin alderatzen ematen dugu bizitza osoa. Alderatze horretan kontraesanak sortzen dira, eta kontraesan horiek gainditzeko prozesuak abiatzen ditugu. Errealtatea eta ezagutza estu loturik daude, eta harreman horretan konstruktuz sozialak sortzen dira.

Ezagutzaren soziologiak esaten digunez, ezagutza hiru prozesuren bidez eraikitzen da: prozesu ideologikoa, prozesu psikologikoa eta errealtatearekiko zentzu komuneko prozesua. Prozesu horien artean beharrezkoa den oreka ematen ez denean, psikologia sozialean "disonantzia kognitiboa" esaten zaiona gertatzen da. Hain zuzen ere, hori leporatzen zion Marxek sozialismo utopikoari: errealtatean ez kokatzea.

Sortuko eta Ezker Abertzale osoko militantzia garai berriaren parametroetan kokatu behar da. Ezagutzaren eraikuntzan ematen diren hiru prozesuetatik, prozesu psikologikoa da une honetan militantziari begira gehien indartu behar duguna. Egin dugun aldaketa kualitatiboa da, eta militantziak denbora behar du jarduera eredu berriaren kosmobisio osoa asimilatzeke. Forma berrietara moldatzeko zeregin hori nork bere burua egokitzeke prozesu psikologiko bat da bereziki, eta lehen urratsa aldaketaren edukiak asimilatzeke jarrera irekia garatzea da.

Autokonplazentzian erori gabe, esan daiteke aldaketa prozesua ondo irteten ari dela. Hala ere, ezin da ukatu gaingaitu beharreko zailtasun ugari ditugula oraindik. Eta ezin dugu ahaztu une batzuetan eta zenbait gauzatan prozesu tirabiratsua izan dela. Oraindik ere, sektore batzuei (gero eta gutxiagori) kosta egiten zaie jarduera politikorako ildoan egindako aldaketak barneratzea. Aldaketak ulertzeko zailtasun horrek babesgabe uzten ditu aldaketa prozesuaren aurrean, eta beren barnean sumatzen duten frustrazioaren errudun bat bilatu behar dute. Haienentzat, Sortu da erruduna, eta gogor kritikatzeko dute. Hala, prozesuarekin ados ez dagoen orok kritika korrosiboak (ezen ez kritikoak) egiten ditu Sorturen eta haren militantziaren kontra. Egoera horri aurre egiteko ordua da. Argi esan behar dugu Sorturen kontra joatea Ezker Abertzalean gehiengo oso handi batek era guztiz demokratiko batean hartutako erabaki baten kontra joatea dela. Azken batean, Ezker Abertzalearen kontra joatea da.

Garrantzitsua da militantziak kritika horien aurrean erreakzionatzen jakitea eta autoestimua politikoa ez galtzea. Une honetan, militantzia da faktore politiko garrantzitsua, prozesuarentzat eta Euskal Herriarentzat. Militantzia proiektu politikoaren giza faktorea da, eta giza proiektuorik gabe ez dago garaipenik. Guztion esku dago etapa historiko hau garatzea. Gure ardura da prozesu hau aurrera eramatea independentziaren eta sozialismoaren helburu estrategikoak erdiesteko. Iraultza demokratikoko prozesu batean gaude, eta militantziak ordezkatzeko du iraultza hori.

Azken Xedapenak

Lan honetan garrantzi berezia eman diogu Ezker Abertzalearen denbora historikoa deskribatzeari eta igaro dituen estadio politiko desberdinen testuinguruan kokatzeari. Denbora luze honetan gauza asko gertatu dira, eta gertaera horiek guztiek erabakiak hartzera eta unean uneko egoerara egokitzera eramán gaituzte. Inondik ere, gure esentzia politikoa garai bakoitzeko premien arabera moldatzeko gaitasun hori da Ezker Abertzalearen dohain nagusia.

Batzuetan izugarri zorrotzak izan gara gure inguruan eta munduan gertatzen zena interpretatzeko orduan. Gertaerak kontuan ez hartzeko ausarkeria izan dugunean, errealitateak berak jarri gaitu gure lekuan. Guztia aldatzen da, gizartetik hasi eta ideia politikoetaraino, eta bilakaera horretan elementu berriak agertzen dira, interaktiboak nahiz dialektikoak. Elementu horiek argi erakusten digute ezer ez dela betiko eta oso sentikorrak izan behar garela gizartean gertatzen diren aldaketekiko. Ez dago egia absoluturik; ideien borroka eta dinamika sozialak daude. Axioma hori ulertzea politikaren epizentroan kokatzea da.

Lan honetako atal batean esan dugun bezala, egoera eta une korapilatsuen aurreko homogeneousazio beharren ondorioz, askotan “kontraesanik ezaren printzipioa” nagusitzen zen espazio batean bizi izan gara. Bazirudien dena argi edukitzera behartuta geundela, baina, egia esan, gure inguruan gertatzen zena argi ikustea eragozten zigun iluntasun batean mugitzen ginen. Hain denbora luzez iluntasunean ibiltzearen ondorioz, munduaz osatu genuen ideiak gure behar ideologikoak asetzen zituen, baina ez zuen lortzen gure gizartearekin konektatzea. Eta gure teoriaren esentziara jo behar izan genuen gure Herriarekin berriz elkartzera eramango gintuen bidea bilatzeko.

Prozesu bakoitzak bere denbora eta bere espazioa du, eta gurea ezin zen salbuespena izan. Ezker Abertzalea garaiz konturatu zen “kontraesanik ezaren” espazio horretan sortzen ziren erantzun zurrinak ez zirela aski gertatzen ari zena ulertzeko. Jatorrizko teoria begi kritikoz aztertuz, sorkuntzaren espazioa irekitzea lortu genuen, orainari eta etorkizunari garapen praktikoa izango zuten forma ideologikoetatik begiratzeko aukera emango zigun teoria osagarri bat sortzeko. Eta egoera horretan galdera berriak sortu ziren, eta erantzun berriak bilatu behar genituen. Batez ere, iluntasunetik kanpoko egoera berri honetan jokatu behar dugun rola interpretatzen jakin behar genuen. Atera genuen lehen ondorioa hau izan zen: aztertu nahi genuen mundua ezin zen interpretazio

bakar batera murriztu; ulermenaren eta azalpenaren kontzeptuak praktikan jartzea eskatzen zuen.

Teoria abertzaleak esperientzia berriei irekita jarraitzen du. Teoria bat inoiz ezin da izan interpretazio espazio itxi bat. Beren funtzio deskriptiboan, teoriak ezagutzen dena laburbiltzeko era praktikoa bat eskaintzen dute. Beren funtzio epistemologikoan, berriz, ezagutzen denetik harago joaten saiatzen dira. Hau da, aurkitu ahal dugunari buruzko azalpenak ematen dizkigute eta fenomeno berri horietan nola sakondu ahal dugun adierazten digute. Beste era batera esanda, lehendik dakiguna antolatzeke balio digute, eta ezagutzen ez dugunaren eremuan barneratzea proposatzeko diguten galdera osagarriak egiten laguntzen digute. Apurka-apurka, prozesu horretan teoria osoagoak, esanguratsuagoak eta egiaztagarriagoak lantzen dira. Iparrorratz baten modukoak dira: bidea erakusten digute, baina orografiaren arabera ikusiko dugu leku zehatz batera zuzenean iritsi gaitzkeen ala itzulunguruak egin behar ditugun.

Teoria abertzalea teoria ona izan da, eta orain ere bada. Berari esker, galderak egin dizkiogu geure buruari eta gure proiektu estrategikoa aurrera eramateko erantzun egokiak aurkitu ditugu. Ezker Abertzaleak teoria horri malgutasuna ematen jakin du eta, horrela, teoria bati gertatu ahal zaion gauzarik okerrenea saihestu du: sorkuntzaz ez elikatzeagatik ahitzea. Bere ibilbide osoan, Ezker Abertzaleak beti ulertu du teoria horren oinarriko elementuen interpretazioa teoria espezifikoagoekin osatu behar zela (teoria osagarriak), egoera zehatz bakoitza azaltzeko. Horrela, inoiz ez du bere indar politikoa galdu eta oxidatze intelektuala ekidin du. Aurrerantzean ere, gure proiektuekin eta kanpoko ekarpenekin elikatzen jarraitu behar dugu. Iluntasunetik harago dagoen espazio batetik jarduteak ematen digun perspektibarekin egingo dugu hori.

Ondo interpretatzeko gai bagara, etorkizuna gurea izan daiteke. Hori da Ezker Abertzalearen benetako apustua, eta militantziak horri ekingo dio, apustu estrategiko berrian ilusio eta indar guztia jarritz. Unerik txarrenetan ezin izan gaituzte asimilatu, eta orain ere ezin izango dute. Errebeldia da gure ezaugarria. Errebeldeak izan gaitzeen guztiok ondo bizi ahalko garen Euskal Herri independente bat eraikitzeke, bihotzean daramagun eta hunkitzen gaituen Euskal Herria sortzeko. Nahi dugun Euskal Herriak aukera bakarra onartzen digu: garaipena.

Euskal Herria, 2015ko Otsaila.

Notas

Notas